

"ERDAL HITZ BAKARRA: EUSKAL HITZ BAKARRA" **JOKAMOLDE MIMETIKOA EUSKAL TERMINOLOGIAN**

Jabier ALBERDI LARIZGOITIA
Julio GARCÍA GARCÍA DE LOS SALMONES
Iñaki UGARTEBURU GASTAÑARES

Euskal Filologia Saila
Leioako Campusa. EHU

SARRERA

Komunikazio honen helburua oraintsuko euskal hiztegi eta hizkera teknikoetan nahikoa zabaldu den jokamolde mimetiko eta arriskutsu bat agerian jartzea da. Joera arriskutsu hori honetan datza: hiztegi teknikoetan erdal terminoaren ordaina ematerakoan, "erdal hitz bakarra: euskal hitz bakarra" filosofiaren arabera zatitzen dira hitzak euskal terminoan. Alegia, 'hitz' unitatearen hizkuntzaz hizkuntzako aldakortasuna aintzakotzat ez hartzea da salatu nahi dugun desbideratzea: jakina denez, hizkuntza jakin batean zerbait adierazteko hitz bakar batez baliatzeak ez du esan nahi aldameneko hizkuntzan ere "hitz bakarraz" baliatu behar dutenik (eusk. *dakarkizut* / gazt. *te lo traigo*), hizkuntzaz hizkuntza ikaragarri aldatzen baita hitzen ondarea eta errealtatea.

Erdarekiko edo erdara jakin batekiko mendekotasuna ispilatzen duen "filosofia" edo irizpide itsu horren ondorioz, zalantzazko edo badaezpadako eraketa duten hitz edo adierazle "iratxo" ugari sortu dira euskaraz: a) hitz "berri" horietako batzuek euskal morfologiaren legeak urratzen dituzte (*zamarindu/exonerar*); b) beste batzuk lexikoaren osagaikoak balira bezala aurkezten dira (*aldebakarreko...*, *aldebateko...* / *...unilateral*), benetako sintaxi-egiturak diren arren eta inongo ihartzerik jasan ez duten arren; c) hirugarren multzo batean, erabat lexikalizatutzat-edo jotzen diren hitz elkartu berri-berriak leudeke, ihartze- edo lexikalizazio-prozesu hori ia-ia hasi gabe dagoen arren (*zergabiltzaile* / *exactor*). Edozein modutan, gehienetan joera euskal hitz beregainak elkartuta edo bat eginda aurkeztekoa izaten da: idazkera bateratuak ugaltzen dira euskaraz, abiapuntu den erdal hitzaren "banakotasunak" eraginda.

Erdal "hitz bakarren" eredura sortutako euskal "hitz bakarren" inguruko kritika garatzeko, hiztegi tekniko batetik jasotako (UZEI, *Zuzenbide Hiztegia*, 1990) adibide-sorta labur batean oinarritu gara. Egia esan, aukeratutako terminoak abiapuntu edo aitzakiatzat hartu ditugu, salatu nahi dugun jokoera mimetikoaren ispilu direlakoan. Beraz, gure kritika termino horien alderdi linguistikora mugatzen da, kontzeptuaren aldetiko iruzkinak alde batera utzirik: hitzen mugak eta hitzen eraketa dugu hizpide, eta hitzak termino bihurtu nahi diren aldetik soilik hurbiltzen gara azterketa terminologikora. Dena dela, aztertu nahi dugun alderdi formala —hitzen mugarritzea— garrantzi handikoa da terminologiarentzat: lehenik, terminologiak estandarizazioa bultzatu nahi duelako eta prozesu hori hein handi batez hitzen formari lotua dagoelako; bigarrenik, terminologiaren ikuspuntutik —'terminoa' hitz askokoa izan daitekeela kontuan harturik— justifikaezina delako hitzen mugak aintzakotzat ez hartzea eta tradizioko erabilerari bizkarra ematea.

Azpirarratzeko da, hala ere, aipatu dugun joera mimetikoaren eragina terminografiaren mugez harantzago doala, hiztegi elebidun orokorretara zabalduz. Logikoa denez, badirudi "hitz bakarren" aldeko joera edo tentazioa larriagoa dela hiztegi elebidunetan, euskal literatura-tradizioa jaso nahi duten hiztegi orokorretan baino (*EH*, *OEH*): lehenengoetan erdal kategoria kontzeptualen adierazpen linguistikoak behartuta jokatzen da maiz eta inoiz baita erdal hitzen itxurak itsututa ere.

Hauek dira aztertuko ditugun terminoak:

GRAMATIKALTASUNAREN MUGAN DAUDEN ADITZ-ELKARTEAK

Aditzak

• zergarindu	desgravar	dégrever
• zamarindu	exonerar	exonérer
• kargarindu	exonerar	exonérer
• tartejarri	interponer	interposer, interjeter
• tartejartze	interposición	

Aditz-izenak

• ez-agertze	incomparencia...	non-comparution...
• ez-aurkezte	incomparencia...	non-comparution...
• ez-aipatze	preterición (testamentuan aipatu gabe uztea)	préterition
• ez-ordaindu	impagado	impayé, non acquitté

LEXIKALIZATUTZAT HARTUTAKO SINTAXI-EGITURAK

(1) aldebakar(reko)	unilateral	unilatéral
(1a) aldebakarreko kontratu	contrato unilateral	contrate unilatéral
(1b) aldebakarreko obligazio	obligación unilateral	obligatione unilatéral
(2) aldebateko kontratu	contrato unilateral	contrate unilatéral
(3) aldebi(ta)ko	bilateral	bilatéral
(3a) aldebi(ta)ko kontratu	contrato bilateral	contrate bilatéral
(3b) aldebi(ta)ko obligazio	obligación bilateral	obligation bilatérale
(4) aldibereko	simultáneo	simultané
(4a) aldibereko prestazioak	prestaciones simultáneas	prestations simultanées
(5) aldebigotasun	bilateralidad	bilatéralité
(6) aldiberekotasun	simultaneidad	simultaneité
(7) hirurteko	trienio	(azalpena)
(8) bosturteko	quinquenio	(azalpena)

LEXIKALIZATUTZAT HARTUTAKO HITZ-ELKARTEAK

Mendekotasunezkoak

• enpleguaniztasun	pluriempleo	cumul d´emploi
• alderdianiztasun	multipartidismo	pluralisme de partis
• alderdibitasun	bipartidismo	système bipartite

Sintetikoak

• abalemaile	abalista	celui qui donne un aval
• zergabiltzaile	exactor	exacteur

Askatasungabetzaile

• askatasungabetzaile	privativo de libertad	privatif de liberté
-----------------------	-----------------------	---------------------

1. HITZA DEFINITZEKO ETA ZEDARRITZEKO ZAILTASUNAK

Ia hizkuntzalari guztiak bat datoz 'hitza' unitate linguistiko bezala definitzeko dauden zailtasunak azpimarratzerakoan eta, hain zuzen ere, ez dirudi oraingoz denen gustuko definizio gogobetegarririk sortu denik. Definizioak hainbat izan dira; betegarririk eta operatiborik gutxi, ordea. Hizkuntzalariak sumatu duten zailtasun horren aurrean, hiztunen intuizio orokor eta ukaezina dago, hots-kate mintzatua 'hitzetan' zatitua sumatzen duena¹. Beraz, hiztunak sumatzen duen errealtate horren —'hitzaren'— arrazoi objektiboak edo irizpide erabakigarriak bilatzea izan da hizkuntzalarien lana.

Zer da orduan 'hitza'? Bi etenaldiren arteko hots-multzoa? Edo bestela esateko, idazkeran ondoz ondoko bi zuriuneraren artean agertu ohi den segmentuetako bakoitza al da 'hitza'? Bistan dagoenez, ikuspegi hori ortografikoa da soil-soilik eta ondorioz kamutsegia. Hitza hizkuntza-unitatea baldin bada, irizpide gehiagoren beharrezana sentituko dugu.

Hizkuntzalaritza tradizionalen 'hitza' gramatikaren unitate oinarrizkoetako bat zen eta ondoko ezaugarrien arabera definitzen zen (Dubois eta alii, 1983: 463): 1) esanahi-unitatea da, fonema batez edo gehiagoz osatua eta idazkeran bi zuriuneraren artean emana; 2) formari eusten dio, erabat edo partez (flexioaren kasuan: *homo/homini*) erabilera sintaktikoan; 3) eta hurrengo esanahiak adierazten ditu: "objektua" (izenen bidez), "ekintza" edo "egoera" (aditzen bidez), "kualitatea" (adjektiboen bidez), "erlazio gramatikala" (preposizio edo kasu-marken bidez)... Ikuspegi honen alderdi ahulen artean hurrengoak aipatuko ditugu: a) unitate grafiko eta unitate semantikoen artean postulatzeko den banan-banakotasuna (hots, badira 'hitza' baino esanahi-unitate zabalagoak ere); b) hitzek, oro har, ez dute esanahi bakar bat, esanahi ugari baizik; c) nozio bera kategoriatan gramatikalki desberdinen bidez adieraz daiteke (esate baterako, "kualitatea" adierazteko *zuri* bezalako adjektibo bat edo *zuritasun* bezalako izen bat erabil dezakegu euskaraz).

Geroagoko definizioen artean batzuk dira gogoan hartzekoak. Bloomfield-en (1926) definizioa ez da berehala baztertzekoa: haren hitzetan, 'hitza' hizkuntzako "forma libre txikiena" litzateke. Meillet-en (1921) definizioaren arabera, hitza "soinu jakin batzuen eta esanahi jakin baten arteko elkartea da, erabilera gramatikalki jakin bat izan dezakeena"; baina jakina, hitzak ez dira definizio hau betetzen duten unitate bakarrak. Beste irizpide baten arabera (Hockett, 1958), hitza perpausaren edozein segmentu litzateke, baldin eta etenaldia onartzen duten hurrenez hurrenko puntuek mugaturik badago. Baina definizio horren arabera, zalantza handiak izango genituzke *enfrente* bezalako hitz bat, hitz bakarra ala bi hitz diren erabakitzeko. Hjelmslev-en arabera, hitzak "zeinu trukagarri txikiak" lirateke; eta Trnka-k ere (1948) antzera definitzen du 'hitza'²: "perpausak elkarrengandik bereizteko balio duen zeinu trukagarri txikiena". Baina trukagarritasunaren irizpide horri jarraituz, euskararen kasu-markak hitzen "zakuan" sartu beharko genituzke, agian, separagarritasunaren baldintza betetzen ez duten arren (Uribeetxebarria, 1992: 305): *gizon-ari / gizon on eta handi-ari*. Schmidt-en arabera, 'hitza' zeinu linguistiko bat da, "independentzia duen eta esanahi linguistikoa bideratzen duen (zeinu linguistiko) txikiena"³.

¹ Sapirrek (1921: 43) azpimarratu zuenez, 'hitza' elkarrengandik bereizteko intuiziozko gaitasun hori hitz guztiena da, baita tradizio idatzirik gabeko hizkuntzetako hitzunen ere: "En dos ocasiones he enseñado a indios jóvenes e inteligentes a escribir su propia lengua de acuerdo con el sistema fonético de que yo me sirvo. Me he limitado a enseñarles de qué manera debían transcribir fielmente los sonidos en cuanto tales. Los dos muchachos se encontraron con ciertas dificultades para aprender a dividir una palabra en sus sonidos constituyentes, pero absolutamente ninguna para determinar las palabras. Esto último lo hicieron ambos con espontánea y completa fidelidad. En el texto manuscrito en nootka (de varios centenares de páginas) que obtuve así de uno de los jóvenes indios, las palabras, prácticamente sin excepción, están aisladas de la misma manera que yo o cualquier otro especialista en lingüística las hubiéramos aislado; y no sólo entidades abstractas indicadoras de una relación como el *that* ["que"] y el *but* ["pero"] ingleses, sino también palabras-frases completas (...). Estas experiencias hechas con hablantes o "escribientes" ingenuos son argumentos mucho más serios en favor de la unidad definidamente plástica de la palabra que una andana de razonamientos teóricos."

² Lázaro Carreter (1981: 309).

³ Lewandowski (1982: 253).

Ikusienez, 'hitza' definitzeko saiakera gehienek porrot egiten dute, hiztunoi alde aurretik emana zaigun kontzeptuaren hizkuntzaz hizkuntzako errealtatean egiaztatu nahi direnean. Are gehiago, porrot horren ondorioz, hizkuntzalari batzuek zalantzan jarri dute 'hitz' unitatearen baliagarritasuna; linguistika estrukturalak, esaterako, berariaz zokoratu du terminoa, hizkuntzalaritzarentzat kontzeptu zehaztugabe, anbiguo eta antzua delakoan (Martinet, 1960).

Definizioak definizio, irtenbide erosoagoa izan daiteke 'hitza' hizkuntzaren maila nagusietan aztertzea (Ullmann, 1962)⁴. Alde batetik, fonologiatik hurbil gaitzke kontzeptura: hiztunak poliki mintzatuz egiten dituen etenaldien artean geratzen diren segmentuak —etenaldien arteko unitateak— hitzak lirateke. Bide honetatik lortzen diren hitzak oro har morfemak baino zabalagoak dira (*euritsu, gizonekin...*). Beste alde batetik, hitza gramatikaren ikuspegitik azter daiteke: hitzak perpauseko elementutzat ere hartzen ditu hiztunak; alde horretatik, distribuzio jakin bat duten unitateak lirateke hitzak. Jakina, hizkuntza batetik bestera alde handiak aurkituko ditugu: hizkuntza batean hitz bakarraz adierazten dena (lat. *homini*, eusk. *gizonari*), hitz gehiagoz adieraz daiteke beste hizkuntza batean (gazt. *al hombre...*). Azkenik, maila lexiko-semantikoan ere azter daiteke 'hitza': hitzak esanahien mundu zabala zatikatzen duten unitateak dira nolabait; hots, halako independentzia duten eta esanahia duten zeinurik txikiak lirateke. Dena den, irizpide semantiko soilak ez du balio handirik hitza definitzeko, hitza baino unitate handiagoak (*josteko makina* bezalako hitz-multzo bat) edo txikiagoak ere (lexemak edo morfemak) izan daitezkeelako esanahi-unitate.

Puntu honetara iritsita, beharbada, lagungarriena hitzak zedarritzatzeko, bata besteagandik bereizteko irizpideak eskaintzea izan daiteke. Edozein modutan, irizpide-multzo baten beharra azpimarratu behar da, irizpide bakarrean oinarrituriko hurbilketek huts egiten dute eta. Hurrengoak lirateke aipagarrienak⁵: 1) perpaus-barneko autonomia; 2) lekuzko trukagarritasuna edo mugikortasuna kate mintzatuan; 3) separagarritasuna; 4) funtzio sintaktiko txikiak. Eta denetarik, lekuzko mugikortasuna eta separagarritasuna ditugu erabakigarrienak hitzak zedarritzatzeko. Bi irizpideok ondoko eran loturik daude: separagarritasuna baldin badago, nola-halako mugikortasuna ere egongo da (*la casa / la gran casa*); baina ez da nahitaz gauza bera gertatzen alderantzizko zentzuan (*gizon-ari / gizon on eta handi-ari*). Denen artean, beraz, badirudi separagarritasuna izan daitekeela irizpide sendoa⁶. Beste irizpide lagungarri batzuk izan daitezke: a) azentuazioa; b) elementuaren aurrean eta atzean etenaldiak egiteko posibilitatea; etab.

Hala eta guztiz ere, kritikak gorabehera, aitortu beharko da Benvenistekin (1966) batera 'hitza' oraindik ere termino "ordezkaezina" dela, estrukturalista saiatuenak berak ere termino horretaz baliatu beharrean gertatu baitira uste eta nahi baino gehiagotan.

2. HITZA ETA TERMINOA: "TERMINOAK EZIN DIO EZIKUSI EGIN HITZARI"

Hitza eta terminoa maila desberdineko unitateak dira: hitza lexikologiaren aztergaia da; terminoa, terminologiarena. Bi unitate hauek antzerakoak dira, baina inola ere ez berdinak. Terminoarenezaugarri bereizgarria "espezialitate-eremu jakin batean erabilia izatea" da: beraz, alde horretatik, 'hitza' espezialitate-eremu jakin batekoa bada, 'terminoa' ere bada (Cabré, 1993: 87). Ondorioz, bi kontzeptuen arteko muga nahiko irristakorra da: teoriarik kasurik onenean, esan liteke 'terminoa' —eremu jakin batean erabiltzen den neurrian— monosemikoa edo adiera bakarrekoa dela eta 'hitza' polisemikoa dela, printzipioz hitzaren erabileremua zehaztugabea delako. Terminologia-hiztegi bateko eta

⁴ Lewandowski (1982: 253-254).

⁵ González Calvo (1982: 392-393).

⁶ Uribeetxebarria (1992: 305-307).

hiztegi orokor bateko unitateak alderatuz gero, axaleko desberdintasun linguistikoak nabarmenduko zaizkigu: hitzak eta terminoak eratzeko baliabideen maiztasuna desberdina izango da (esaterako, hitz-elkarketa eta eraikuntza sintagmatikoen emankortasuna handiagoa da terminologian); kategoria gramatikal bakoitzaren maiztasuna eta pisu espezifiko ere desberdina izango da (terminologian izena da "errege"), etab. Pragmatikaren argitan bereizten dira ondoen hitzak eta terminoak: a) erabiltzaileen arabera; b) egoeren arabera; c) gaien arabera; d) batzuk eta besteak agertu ohi diren diskurtso-motaren arabera. Baina funtsean unitate baten eta bestearen hizkuntza-izaera edo muina berdinak dira, terminologiak ezinbestean lexikologiaren lehengaiatz baliatu beharra dauka eta, hitzez alegia.

Jakina, hortik aurrera asko dira desberdintasunak: terminoak konplexuak izaten dira maiz, esan nahi baita, erlazio gramatikalak adierazten dituzten elementuez hornitutako eraikuntza sintagmatikoak edo terminologia-sintagmak⁷ (*gauzak bortxatuz egindako lapurreta*). Bistan dagoenez, 'terminoa' askoz ere unitate zabalagoa da alde horretatik. Beste alde batetik, hitzak diren elementu gramatikal asko (juntagailuak, lokailuak, preposizioak, etab.) nekez bihurtuko dira 'termino': halako hitz funtzionalek ez dute izaera terminologikorik.

Nolanahi ere, berezitasunak izanik ere, eraikuntza sintagmatikoak, perpausak eta diskurtsoa antolatzen diren terminologiak ezin ditu hautsi hizkuntzaren gainontzeko unitate lexikoei jarraitu behar dituzten legeak: "Si los términos son unidades de un sistema léxico (incluyendo el léxico común y los distintos léxicos especializados) que forma parte del sistema gramatical general, la terminología debe participar de las mismas reglas de construcción de frases y de constitución del discurso que las demás unidades léxicas de la lengua." (Cabré, 1993: 170).

Ondorioz, terminoak sortzeko edozein baliabide (eratorpena, hitz-elkarketa, eraikuntza sintagmatikoak...) aplikatzerakoan ezinbesteko baldintza da aberasten ari garen hizkuntzaren gramatika-legeekiko begirunerik zorrotzena. Alde horretatik hutsegite handia edo desbideratze justifikagaitza da terminologiak bere kabuz termino berriak sortzea, hiztegi orokorrekoa den hitzari ezikusi eginda edo bizkarra emanda. Eta ezikusi egite edo bizkar emate hori era askotakoa izan daiteke: hitz-eraketari dagokiona (*zamarindu*), sintaxiari dagokiona (*aldebateko kontratu*) edota hitzen idazkerari dagokiona (*enpleguaniztasun*). Hain zuzen ere, 'hitz' unitatea ez errespetatuz edo euskal hitzaren mugariak gogara aldatuz, uste dugu lehen aipatu maila guzti horietan egin daitezkeela urratzeak edo lege-hausteak. Eta lehen begiratu batean besterik pentsa daitezkeen arren, idazkerari dagozkion axolagabekeriak ez dira axola gutxikoak terminologiarentzat, ezen normalizazio-prozesuen helburua terminoen forma idatzia baita eta ez hainbeste haien ahoskera (Cabré, 1993: 172-173).

3. GRAMATIKALTASUNAREN MUGAN DAUDEN ADITZ-ELKARTEAK

Erdal hitz bakarreko terminoen ordain modura ager daiteke hainbat aditz-elkarte. Batzuk maizago agertzen dira aditz modura eta beste batzuk aditz-izen modura. Aditz modura: *zergarindu* (desgravar), *kargarindu* (exonerar), *zamarindu* (exonerar), *tartearri* (interponer); eta aditz hauetatik *zergarinketa*, *tartearjartze*... bezalako aditz-izenak. Aditz-izen modura: *ez-aipatze* (preterición), *ez-aurkezte* (incomparencia); eta hauen ondoan *ez-ordaindu* (impagado), *ez-agertu* (no presentado) bezalako partizipioak.

3.1. Aditzak: *zergarindu*, *kargarindu*, *zamarindu*, *tartearri*

⁷ Lexikologian ere 'hitza' oinarrizko aztergaia den arren, goragoko unitateen beharra sumatu dute lexikologoek: Guilbert-en 'esanahi-unitateak', Benvenisteren 'sinapsiak' (*josteko makina*) edo Potier-en 'lexiak' dirateke terminologiako 'eraikuntza sintagmatikoen' pareko elementuak (Dubois et alii, 1983: 398).

- *Odolustu* bezalako elkartuak

Elkartu hauek, oro har, "*odolustu*" bezalakoak dira. Lehen osagaia izena dute eta bigarrena aditza. Beraz, hitz elkartuak aditz kategoria hartuko du. Osagai bien artean suma daitekeen erlazio semantikoa inesiboaren edo instrumentalaren gainean eraikitako parafraziaren bidez adieraz daiteke.

indarberritu: indarrez berritu (instrumentala)
gurutziltzatu: gurutzean iltzatu (inesiboa)

Beraz, elkarte hauetan mugatzailea adizlaguna izango da sintaxi egituran. Dena den, lehen osagaia inesiboaren bidez adieraz daitekeela esan beharrean, leku-denborazko izena dela esan beharko genuke: *goraipatu*, *azpimarratu* (azpian edo azpitik marratu), *aurreikus* (aurrez ikusi)... Banan-banan aztertu beharrekoak dira batzuk besteak baino askoz ihartuagoak daudelako, baina esan daiteke beti —edo ia beti— dagoela aditz sintagma modura emateko aukera:

itxuraldatu: itxuraz aldatu
onartu: ongi hartu

Multzo berean (izena + aditza) ditugu *lo egin* bezalakoak. Baina hauen parafraasian mugatzailea (izena) mugakizunaren (aditzaren) objektua izango da, eta ez adizlagun. Sintetikoen antzekoak dira "lo egin" moduko aditz elkartuak (egin, eragin, eman, hartu), hitz-elkartu ote diren erraz esan ezin badaiteke ere (hitz egin, hutsegin, hitzartu, parte hartu...). Hauen artean ere batzuk ihartuak dauden arren, hiztunak gehienetan badu objektuaren eta aditzaren kontzientzia; *barre egin*, *hitz egin*, *lo egin*... bezalakoetan objektuak erraz onar dezake determinatzailea: a zer nolako barreak egin genituen, hitz bi egin arte, lotxo egin, non egin duzu lo... —erabilera hauek zabalduago daude euskalki batzuetan besteetan baino—. Lehen aipatu ditugun mugikortasun eta separagarritasun irizpideek erakusten digute elkartu horiek ez daudela oraindik ihartuak. *Hutsegin* aditza, ordea, besteak baino ihartuago dago eta objektu zuzena ere har dezake.

- Emankortasuna

Aditz elkartu hauen artean bereizi behar ditugu maiztasun handikoak eta gaurko euskarari ia emankortasunik ez dutenak.

a) Badira euskaraz oso emankor gertatu diren eta sarritan ihartuak dauden elkartuak, *etsi* eta *iritzi* aditzek osatzen dituztenak hain zuzen: *gaitziritzi*, *gutxietsi*, *ederretsi*, *gaitziritzi*, *oniritzi*... Gaurko euskaldunak erraz deskodetu ditzake elkartu hauek, iritzi aditzak osatzen dituenak batez ere, aditz hau beregaina delako hiztegian (*etsi* ez bezala).

Baina hauen ondoan badira ihartuak dauden *sinetsi*, *miretsi*... bezalakoak; sarrean esan bezala desmotibatuak dira eta lexema bakarrekoak.

b) Aditz elkartuak maiz osatzen dituzte honako aditz hauek: *aldatu* (itxuraldatu), *berritu* (indarberritu), *gabetu* (baliogabetu).

c) Askoz bakanagoak dira atal honetako beste elkartuak: *odolustu*, *indargaldu*, *azpimarratu*, *gurutziltzatu*...

Baina kontuan izan ditzagun ondoko gertaerak.

Elkartu hauek ez dira zeharo emankorrak eta ez dituzte beti elkartuak osatzen: **etxealdu*, **koloreberritu*, **albomarratu*, **gogogaldu*... Gainera sintaxi egitura modura ere ager daitezke: *luze iritzita egon*, *itxura(z) aldatuta etorri*, *bali(rik) gabe utzi*; *gurutzean iltzatu (josi)*.. Erraz sortzen dira erdarazko hitz bakarreko terminoaren ordain gisa:

crucificar: gurutziltzatu (gurutzefikatu)
 debilitar: indargabetu (ahuldu)
 ensalzar: goraiatu (goratu)
 enamorar: maitemindu

Eta erraz sortzen dira erdaraz aurrizkien bidez eratorriko hitzen ordain gisa. Euskarak ez du halako aurrizkirik eta eratorpena edo elkarketara jo beharra du halakoetan; ez da, hortaz, harrizkoa itzulpena horrenbeste hedatu den azken urteetan honelako elkartuak ere hedatzea.

TRANSformar: itxuraldatu, antzaldatu (aldatu)
 REnovar: eraberritu (berritu)
 REformar: itxuraldatu
 PREver: aurreikusi (aurrez ikusi, aurretik ikusi)

Maiz erabiltzen dira hitz teknikoan ordain gisa, mailegu zuzena ez hartzeko:

derogar, abrogar, abolir: indargabetu (derogatu?)
 desgravar: zergarindu? (desgrabatu?)
 interponer: tartearri?

- Mugak

Bereziki esparru teknikoan gertatu den jokabide mimetiko horren ondorioz hedatu dira (hiztegi batzuen bidetik neurri batean) hainbat tradizioz gabeko elkartu berri:

zergarindu, zergajaitsi (desgravar)
 zamarindu, kargarindu (descargar)
 tartearri (interponer)
 artejarri (intermitir)
 lepamoztu (degollar)
 burumoztu (decapitar)

- Arindu

Arindu: 'aligerar, disminuir, descargar (la conciencia)'. Aditz honek duen esanahia oso hurbil du *des-* aurrizkiaren balioetako bat, gabetasunarena. "*Ezen milla eriden izan balirade-ere ni arindu nendukeitenik pena hunetarik (Lç Dedic)*". Baina ez dira gure testuetan * pena-arindu edo * penarindu bezalakoak. Erabilera bikoitza du arindu aditzak: a) *loak buruko mina arindu dit* (zer arindu), b) *arindu naiz ardura handi batetik*. (zertatik arindu).

- *baldinetarik gure aitzineko zirenen pinturen ikhuste xoillak gure bihotz-mina arintzen eta konsolatzen badu...* ES 116
- *agian bigarren ezkontza batek arinduko du zuen alharguntzaren dolua* Lg I244
- *illiak ere gutxitu dira eta burua arindu* Uzt ZArg
- *iduri zuen burutik arindua* Lg II 399
- *orain ari dalako burutik arintzen...* Ibv 196
- *arindu eben zeroianen diru guztietatik* Ib
- *arindu naiz neukan ardura aundi batetik* Etxba Eib
- *burutik arintzea* Dv

Hiztegietan aurki daitekeen *buruarindu* bietara uler liteke: *buruarin* izenondo funtzioko elkartu posesiboaren gainean eratutako aditza, *buruarin* bihurtu alegia, edo *buruz* edo *burutik arindu* erara. Eta era berean *zamarindu* elkartu berria (*zamaz arindu?*,

zamatik arindu?). Baina testuetako erabilera nagusia bestelakoa da, egitura sintaktikoa (zer arindu, zertatik arindu)

Ez dirudi, beraz, arrazoizkoa edo beharrezkoa hiztegi batzuek jaso zituzten *zergarindu*, *zergajaitsi* (HOT) edo gaurko batzuk aukeran ematen dituzten *zergarindu* = *desgrabatu* (3000) horrela jasotzerik. Egokiagoa dirudi *zerga arindu* edo *zergak arindu* (Elh) erabilera. Bestalde, ustezko elkartuaren lehen osagaiak objektuaren funtzioa bete dezakeelarik pentsa liteke elkarte sintetikoentzako Euskaltzaindiak proposatutako idazkeraren arabera *zerga-arintze* edo *zerga-aringarri* idatz litekeela, baina ez luke horrek *zergarindu* (?) bezalako aditzari bidea emateko aitzakia ekarri behar.

- Jarri

Erdarazko *inter-* aurrizkidun hitzen ordain gisa hiru eratako hitzak izan ditzakegu:

- euskal hitzak: *interponer un recurso* = *errekurtsoa jarri*
- mailegu zuzena: *interferir* = *interferitu* (FIS)
- aditz sintagma osoa: *interconectar* = *elkarrekin lotu*; *interponer(se)* = *tartean jarri...*

Mailegu zuzena onartzeko arazorik ez dugu euskal ordainik ez dagoenean eta, bereziki, erdal hitza ihartua dagoenean (*inter* + *tema* zatitu ezin daitezkeenean) eta bigarren osagaia bereizten ez denean: *interpelar* = *interpelatu*. Baina ez dirudi erdal hitza mimetikoki (osagaika) itzuli behar denik. Jokabide mimetiko horrek dakartza *poli-kirol-degi* = *poli-deport-ivo* (*kiroldegi*) bezalako itzulpenak, eta era berean *inter-poner* = *tarte-jarri* (*tartearri?*, *jarri* edo *tartean jarri*) bezalakoak: *artegelditu* (*intermitir*), *tartearri* (*interponer*), *tartearitze* (*interposición*), *tarteragozpen* (*interceptación*), *artearri* (*intermitir*), *artearrera*. (*intermisión*) (HOT).

Egokiagoak dira, beraz:

- interponer*: *jarri*
- interpolar*: *tartean jarri*
- intercalar*: *tartekatu*
- intermitir*: *eten*

- Moztu.

Burumoztu edo *lepamoztu* bezalakoak ere hedatu dira *decapitar* edo *degollar* adierarekin idazkietan nahiz hiztegietan (HM, 3000). Elkartu honetan lehen osagaiak objektu funtzioa betetzen du eta Azkuek eta Lhandek *burumoztu* /*burumuztu* elkartuak jasotzen dituzte beren hiztegietan, baina bestelako erabilera dugu nagusi:

- Jesusen lekukotasunagatik eta Jaungoikoaren itza gatik buru moztu izan ziradenen arimak* Ur (Uriarte) Apoc (G)
- lepamoztu* IBc (1983)
- burumoztu* (V, G, L ap. A)
- burumuztu* (L, S, ap. Lh; H, IL, S ap. DRA)
- burumozte* Ax (ed. Ip 441; Ip-k gehitua *urkhatzea*, *laurdenkatzea*, *burumoztea*)
- buru-mozketea* (Arriand Mt 14)
- buruak edeki* Lç
- buruak ebaki* He
- lepoa moztu* IBk (1980)

Kontuan har dezagun *buru* eta *moztu* osagaien arteko erlazioa objektu zuzen/aditz erakoa dela (*egin*, *eman*, *hartu* aditzek osatzen dituzten elkartuen antzera), eta ez *odolustu*

gurutziltzatu elkartuen antzekoa. Ez dirudi, beraz, arazorik dagoenik *degollar* edo *decapitar* hitzen ordain gisa *burua moztu*, *lepoa moztu*, *lepoa ebaki* egiteko; egokiagoak dira hauek elkartuak baino.

3.2. Aditz-izenak: ez-agertze, ez-aurkezte, ez-aipatze

- Itzulpen arazoak

Ez hitzak aditzaren modalizaziorako adizlagun gisa ezezik aurrizki modura ere jokatzen du *des-* aurrizkiarekin batera. *Ez-* aurrizkiak oinarriari eransten dion ñabardura ukapena edo kontrakotasuna da (*des-* aurrizkiak adiera zabalagoa du). Erdal hizkuntzetako aurrizki bat baino gehiagoren parekoa gertatzen da euskaraz eta euskal hitzik ez dagoenean itzulpen tresna modura aurrizki haien ordain gisa darabilgu:

DEScuidarse	EZaxolatu
INcapaz	EZgauza
Agramatical	EZ gramatikal (?)
NO de ley	EZ legezko (?)

Ez dirudi *ez-* aurrizkiaren (eta harekin konpetentzian dagoen *des-* aurrizkiaren) eta erdal aurrizkien arteko erabateko parekotasunik dagoenik, maiz baitira hizkuntza batean edo bestean hitz bakar eta bakuneko ordainak.

día inhabil	EZegun
sorpresa	EZuste
apodo	EZizen
INcierto (in-cierto = falso)	gezurrezko
INverosímil	sinesGAITZ
INvertebrado	hezurGABE
INsoluble	disolbaEZIN
INusual	ohizKANPOKO, ohiz KANPOKO (?)
INadecuado	DESegoki, EZegoki

Eta beti dugu mailegu zuzenerako aukera: *informal* = *informal*.

- Balioa eta erabilera

Ez aurrizkiak izena edo izenondoa har ditzake oinarritzat.

ezuste, ezurte, ezegun, ezordu, ezoren, ezune, ezbehar, ezizen, ezberdin, ezegoki, ezgauza, ezezagun, ezgai, ezilkor, ezaxola, ezdeus, ezueki, ezikasi, ezjakin, ezinegon (iz)

Eta izenondoetatik eratorritako aditzak edo izenak:

ezaxolatu, ezberdindu, ezdeustu, ezetsi, ezilkortu, ezjakintasun, ezberdintasun, ezilkortasun

Baina azken urteetako erabileran erdal *in-* aurrizkiaren ordain bilakatu dela dirudi, izen nahiz izenondo:

ezaskitasun = *insuficiencia (gutxiegitasun)*
ezerosotasun = *incomodidad (deserosotasun)*
ezjarraitasun = *discontinuidad (eten)*

ezformal = *informal (informal)*
ezpuru = *impuro*

ezmoral = inmoral

Horiekin batera badira hizkera teknikoan erabiltzen diren hitzak, *no(n)*- aurrizkia dutenak (ingelesez eta frantsesez, baita beste hizkuntzetan ere hizkera teknikoan)

ez-murrizgarri (Hizkl) = explicativo (no restrictivo)
ez-organiko (KIM) = inorgánico (no orgánico)
ez-metal (KIM) = no metal
ez-armoniko (MAT) = no armónico
ez-lineal (MAT) = no lineal
ez-periodiko (MAT) = no periódico
ez-numerario (HEZ) = no numerario
ez-gonokoziko (MED) = no gonocócico
ez-Hodgkin (MED) = no Hodgkin

Halakoek izenondo erreferentziala izan ohi dute oinarri. Hitz hauetan *ez-* aurrizkiak ezezkotasunaren ñabardura eransten badu ere, sailkapenaren berri ematen da; hau da, kimika bi atal nagusitan banatzen da: organikoa eta ez-organikoa, funtzioak periodiko edo ez-periodiko izan daitezke...Baina aurreko hauetatik kanpo ere hedatu da *ez-* aurrizkia *no(n)*- aurrizkiaren ordain gisa:

a) **NO + aditz partizipioa.** Euskaraz aditza + gabe(a) da halakoetan ordain egokia:

forma NO conjugada	<i>forma jokatu gabea</i> (* ez-jokatua)
participantes NO clasificados	<i>sailkatu gabeak</i> (* ez-sailkatuak)
término NO marcado	<i>markatu gabea</i> (* ez markatua)

Dena den, badirudi halako bat edo beste oso hedatua dagoela: *ezagertua, ezaurkeztua* (HAH) = *aurkeztu gabea*

b) **NO + izenondoa**

Organización NO Gubernamental
 Plan de Ayuda NO Estatal

Halakoetan *Gobernuz Kanpoko Erakundea* edo *Estatuz Kanpoko Plana* itzuli ohi da, ez *Erakunde Ez-Gubernamental* (?) edo *Plan Ez-Estatala*. Aurreko ataleko termino teknikoetan, ordea, ez da posible izenondo erlazionaletik izenera jotzea (organiko?, numerario?)

c) **NO + izenlaguna**

proposición NO de ley
 cultura de la NO violencia

Hauetan kontrajarri egiten dira proposición DE LEY / NO DE LEY edo cultura DE LA VIOLENCIA / (NO) DE LA NO VIOLENCIA. Izenlagunari dagokio ezezkotasuna eta ez dago aurrekoetan bezala jokatzerik. Hauetan bestelako ordaina aurkitu beharra dago, parafrasia agian.

d) **IN + aditz-izena**

ez betetze (inobservancia)
ez-egite (omisión)
ez mugitze (inmovilización)
ez agertze (incomparecencia)
ez aurkezte (incomparecencia)
ez-aipatze (preterición)

Hauek ez dute tradizioz euskal testuetan eta nekez onar daitezke hitz modura. Idazkera egokitu egin beharko litzateke.

* ezegite, * ezagertze, * ezaipatze...
 (?) ez-egite, (?) ez-agertze, (?) ez-aipatze
 ez egite, ez agertze, ez aipatze

Eta erabilera ere aditz-izenari dagokiona behar dute:

la policía dio orden de inmovilización del vehículo
 * *poliziak autoaren ez mugitze-agindua eman zuen*
poliziak autoa ez mugitzeko agindua eman zuen

la inobservancia de esta orden...
agindu hau ez betetzea...

4. LEXIKALIZATUTZAT HARTUTAKO SINTAXI-EGITURAK

(1) aldebakar(reko)	unilateral	unilatéral
(1a) aldebakarreko kontratu	contrato unilateral	contrate unilatéral
(1b) aldebakarreko obligazio	obligación unilateral	obligatione unilatéral
(2) aldebateko kontratu	contrato unilateral	contrate unilatéral
(3) aldebi(ta)ko	bilateral	bilatéral
(3a) aldebi(ta)ko kontratu	contrato bilateral	contrate bilatéral
(3b) aldebi(ta)ko obligazio	obligación bilateral	obligation bilatérale
(4) aldibereko	simultáneo	simultané
(4a) aldibereko prestazioak	prestaciones simultáneas	prestations simultanées
(5) aldebikotasun	bilateralidad	bilatéralité
(6) aldiberekotasun	simultaneidad	simultaneité
(7) hirurteko	trienio	(azalpena)
(8) bosturteko	quinquenio	(azalpena)

Goiko termino guztiak (1-8) batzen dituen ezaugarri sintaktikoa ondokoa da: guztietan agertzen da funtzio adjektibala duen *-ko* atzizkia (*aldebakarreko*, *aldebateko*, *aldebiko*...). Jakina denez, *-ko* itzurako atzizki desberdinak bereiz daitezke⁸: 1) *-ko*₁, izenlagunak sortzen dituena (*hemen* → *hemengo*, *gurasoekin* → *gurasoekiko*, *urrez* → *urrezko*, etab.); 2) *-ko*₂, erator-atzizki izen-sortzailea ("izena" + *-ko* → "izena": *lekuko*, *belarritako*, *ondorengo*...); 3) *-ko*₃, izenlagun deskribatzaileen —adjektibo moduko— sortzailea ("izen-multzoa/IS" + *-ko* → "Izenlaguna": *jenio txarreko* [*neska*], *hiru urteko* [*kontratua*], *iraupen laburreko* [*kontratua*]...); 4) *-ko*₄, banaketa adierazten duen atzizki adizlagun-sortzailea. Bada, goiko egituretan agertzen zaiguna hirugarrena (*-ko*₃) da, nolabaiteko funtzio kalifikatzailea duten izenlagunak sortzen dituena. Banan-banan azter ditzagun termino horiek.

4.1. Aldebakar / aldebakarreko: "unilateral"

Termino hau erdal izenondo erreferentzial baten (gazt. *unilateral*; fr. *unilatéral*) ordaintzat eman digute UZEIkoek (1990); egia esan, bi forma edo aldaera (*aldebakar* / *aldebakarreko*) eskaini dituzte, dirudienez, aukeran ditugun sinonimoak edo baliokideak balira bezala. Eta hain zuzen ere, hortxe dugu lehenengo buruhaustea: erabat parekoak ote dira *aldebakar* eta *aldebakarreko*? Bistan denez, ez: *aldebakar* zerbait izatekotan, izenondoa izango litzateke itxura bereko beste hitz elkartu zahar eta berri gehienentzera:

⁸ Ikus, besteak beste, Euskaltzaindia (1987: 49-59), Goenaga (1980: 94-96; 133-135); Azkarate eta Altuna (1992) eta Trask (1985)

ZAHARRAK (izenondoak)	BERRIAK (izenondoak)	
begibakar	adierabakar	sexubakar
adabakar (izond./iz.)	atomobakar	silababakar
besobakar	elebakar (izond./iz.)	zelulabakar
esku-bakar (<i>OEH</i>)	hostobakar	...
eskubakar (Elh.;3.000)	molekulabakar	

Eta, hain zuzen ere, *aldebakar* hitza jaso dagoen hiztegieta izenondo modura agertzen da (Elh.; 3.000; *EHM*; "unilateral": *alde-bakar*, *DCV/DCV*³; *alde-bakar: unilateral, DVC*; 2.000). Ez dago jaso *Euskal Hiztegia*, ezta *Ororariko Euskal Hiztegia* ere. Ondorioz, onartzekotan, izenondo gisa onartu beharko genuke, baina ez bestela:

- (9a) kontratu aldebakar (UZEI, 1990: *aldebakarreko kontratu formarekin batera*)
 (9b) erabaki aldebakarra: "resolución unilateral" (3.000)

Kontua da hiztegiaren batean *aldebakar* (izond.) sarreraren azpian dakartzaten adibideak ez datozela bat sarrerari emandako kategoria gramatikalarekin. Hurrengo adibideak datoz Elhuyar-en (1996) hiztegia *aldebakar* (izond.) sarreraren:

- (10a) aldebakarreko kontratua: "contrato unilateral"
 (10b) aldebakarreko su-etena: "tregua unilateral"

Eta 3.000 hiztegiak "unilateral" sarreraren azpian hurrengo adibidea dakar, nahiz eta tokirik aitortu ez euskal sarreraren artean:

- (10c) decisión unilateral: aldebakarreko erabakia

Gure ustez, (10) bezalakoak bere horretan ez dira onartzekoak; eta are gutxiago *aldebakar*-en adibide gisa. Zertara datoz idazkera bateratu horiek? Zergatik *aldebakarreko [kontratu]* eta ez *alde bakarreko [kontratu]*? Bistan dagoenez, biko osagaiak dena ([iz. + izond.]-ko) batera biltzeko arrazoiak ez dugu aurkituko euskararen baitan; bai, ordea, inguruko erdaretan: inguruko erdaretan "hitz bakarra" izatean alegia (*unilateral*).

Norbaitek esan lezake *aldebakarreko* proposatzeko arrazoiak badaudela. Arrazoi bat, sintaxi-egitura baten ("[iz. + izond.]-ko") ustezko edo balizko "lexikalizazioa" burutu dela esatea izan liteke. Jakina, bilakaera hori justifika lezakeen eredia ez litzateke izango *etxeoandre* hitz ihartuarena, ezta horren aldaera den *aitaponteko*, *Jaungoiko* hitzena ere⁹; eta hori arrazoi batzuegatik. Lehendabizi, horrelakoetan izenlaguna (*etxeo*) eta izenlagun horren "mugakizuna" (*andre*) ihartu direlako eta ez izenlagunaren barne-osagaiak *aldebakarreko* kasuan bezala. Bigarrenik, *etxeoandre* kasuan, sintaxi-egitura lexikalizatu egin delako eta kontzeptu bakarra adieraztera igaro delako: *etxeoandre* ez da "etxean dagoen/bizi den edozein andre", "etxeo andre jakin bat, etxea zuzentzen duena" adierazten baitu. *Aldebakarreko* hitzaren esanahia erabat gardena da, bere osagaien batuketaren emaitza besterik ez da: berdin-berdina ulertuko genuke, nozioa hitz batean edo hitz bitan emanda. Ez da betetzen desmotibazioaren baldintza: ez dago higadura edo finkapen semantiko berririk (Euskaltzaindiko LEF Batzordea, 1991: 176-185). Alde horretatik, hurbilagoko eredia aurkituko genuke *hankabiko* (iz./adj.) gisako hitzetan. Horrelakoetan izenlagunaren osagaiak (*hanka biko*) bat eginda ageri zaizkigu, lexikalizatuta edo izen bilakatuta; eta izenlagunak hartzen du izen-sintagman isildutako izenaren erreferentzia (*hanka biko izakiak* → *hanka bikoak* → iz. *hankabiko(ak)*). Dena dela, *aldebakarreko [kontratu]* modukoetan ez dirudi lexikalizazio baten aurrean gaudenik, ardatz-izena (*kontratu*) ez baita isilpean utzi.

⁹ Ik. Azkarate (1990): 319-321.

Irizpide formalei bagagozkie, ez genuke aparteko zalantzarik izango *alde bakarreko [kontratu]* hitz bi direla erabakitzeke. Funtzio kalifikatzailea duten gainerako izenlagunen egitura du: "[izena + izenondoa]-ko / [IS]-ko" (*alde bakarreko / alde biko [txanpon]*). Oso garbi bereizten ditugu hitzak, bakoitzaren distribuzioaren arabera: *atal bakarreko [kontratu]; alde biko [kontratu]; alde bakar bateko [kontratu]; aldea [dago]; bakarra [dago]*... Beraz, elementuen (*alde/bakar*) separagarritasuna eta mugikortasuna aski bistakoa da; eta, zer esanik ez, haien artean etenaldia egin beharra dago, ez baitago *aldebakarreko* etenaldirik gabe esaterik. Azentu-batasunik ere nekez igartzen da.

Bestalde, idazkera bateratua aldezteko "batasun kontzeptuala" aipatzea ez da bidezkoa, hizkuntza batetik bestera asko aldatzen baitira nozioak adierazteko kategoriak eta bideak: euskaraz balio adjektibala duen sintaxi-egituraz (*behin-betiko kontratu, aldi baterako kontratu...*) baliatzen gara sarri kualitateak adierazteko; inguruko hizkuntzetan joera handiagoa dago horrelakoetan izenondoez (*contrato definitivo, contrato temporal...*) baliatzeko. Edozein modutan, adibidearekin jarraituz, "kualitatea" adierazteko aniztasun linguistiko hori (izond. *unilateral* / izlag. *alde bakarreko*) ez da inondik inora eragozpen terminologiarentzat, honek osagai askoko unitate terminologikoak (*aldi baterako kontratu*) erruz eta inolako arazorik gabe onartzen dituelako. Labur bilduz, ez dago lexikalizaziorik, kategoria-aldaketarik gertatu ez delako; ezta ihartzerik ere gutxieneko baldintzak (desmotibazioa, lexema-bakartzea, azentu-batasuna, hots-aldaketa, grafiazko hitz-batasuna) betetzen ez direlako. Beraz, *aldi baterako [kontratu]* onartzeko eragozpenik ez bada, berdin-berdin onartu beharko genituzke *alde bakarreko [kontratu]* modukoak, erdal hitz bakarren araberrako euskal "hitz bakar" badaezpadakoak asmatzen ibili gabe.

4.2. Aldebateko [kontratu] / [contrato] unilateral

Aldebakarreko hitzari buruz esandako guztiak balioko luke honentzat ere. Dena dela, kasu honetan aski harrigarria da hiztegi elebidunetan forma bateratu honek lortu duen zabalkundea. 3.000 eta 2.000 hiztegietan euskal sarreraren artean ere jasoa dago *aldebateko* forma.

DCV/DCV ³	unilateral: alde bateko, alde bakarreko, alde-bakar
DVC	<i>alde-bateko/alde-bakar</i> : unilateral
Elh.	unilateral: adj. alde bateko, aldebakar, alde bakarreko (contrato ___: alde bateko kontratua) (alde-ren azpisarrera gisa, alde bateko: 1. "unilateral". Alde bateko erabakia; 2. "parcial". Alde bateko ikuspegia)
3.000	unilateral: adj. <i>aldebateko</i> , aldebakar, aldebakarreko (aldebakarreko erabakia; kontratu aldebakarra)
2.000	unilateral: <i>aldebateko</i> , aldebakar

Jakina, hiztegi orokorretan (*DVEF, DBF, OEH, EH*) ez dago horrelako sarrerarik.

4.3. Aldebi(ta)ko / bilateral

Beste hainbeste esan genezake *aldebi(ta)ko* formari buruz. Oraingoan, hala ere, Elhuyar (1996) hiztegia aldendu egiten da besteetatik, lehengo jokabidetik *alde biko* eta *bi aldeko* proposatuz:

DCV/DCV ³	bilateral: <i>bi-aldeko/bi-aldeko</i> (DCV ³)
DVC	<i>alde-biko; bi-aldeko</i> : bilateral
Elh.	bilateral: bi aldeko, alde biko (contrato bilateral: bi aldeko kontratua) alde-ren azpisarrera: alde biko/bi aldeko (alde biko kontratua)
3.000	bilateral: <i>aldebiko //</i> <i>aldebi(ta)ko</i> : izlag. bilateral (aldebitako kontratua; alde bitako lehia: concurrencia bilateral)
2.000	bilateral: <i>aldebi(ta)ko</i>

aldebi(ta)ko: izlag. bilateral

Hiztegi orokorretan (*DVEF, DBF, OEH, EH*) ez dago *aldebi(ta)ko* tankerako sarrerarik. Beraz, Elhuyar (1996) hiztegiok bezalaxe, *alde biko [kontratu/obligazio]* edo *bi aldeko [kontratu/obligazio]* proposatuko ditugu eta idazkera bateratu berriak baztertuko.

4.4. Aldibereko / simultáneo

Gauza bera gertatzen da *aldibereko* formarekin.

DCV/DCV ³	simultáneo: aldi bereko, era bereko, baterako, bat-bateko, bet-betako, garai bateko./ aldi bereko, era bereko, baterako, bat-bateko.
DVC	<i>aldi-bereko</i> : simultáneo, sincrónico.
Elh.	simultáneo: aldi bereko (traducción simultánea: aldi bereko itzulpena). aldi-ren azpisarrera: aldi bereko: simultáneo (aldi bereko itzulpena: traducción simultánea).
3.000	simultáneo: <i>aldibereko</i> , baterako. (traducción ---: <i>aldibereko/bat-bateko</i> itzulpena). <i>aldibereko</i> : izlag. simultáneo
2.000	simultáneo: <i>aldibereko</i> , baterako. (traducción simultánea: <i>aldibereko</i> itzulpena) <i>aldibereko</i> : izlag. simultáneo

Ondorioz, *Euskal Hiztegian* egiten den bezalaxe (*aldi bereko gertakariak*), *aldi bereko* eta *aldi bereko prestazioak* proposatuko genituzke (4) eta (4a) idazkeren ordean.

4.5. Aldebikotasun / bilateralidad.

4.6. Aldiberekotasun / simultaneidad

Alde biko eta *aldi bereko* idazkera bereizien aldekoak garen arren, uste dugu azken termino hauek (*aldebikotasun, aldiberekotasun*) onargarriak izan daitezkeela eraketaren ikuspegitik. Izan ere, erator-atzizkiek kategoria lexikal batetik abiatuz beste kategoria lexikal berri bat sortzen dute edo oinarri den kategoria lexikalaren azpikategoriazioa aldatzen dute (Azkarate eta Altuna, 1993: 96) eta *-tasun* atzizkiaren oinarria adjektiboa izaten da nagusiki. 'Adjektibo' zentzurik zabalenean hartuta, alegia izenlagunak eta izenondoak besarkatzen dituela, zilegi izango lirатеке *aldiberekotasun* tankerakoak, *egunerokotasun* gisakoak (2a-2g) posible diren bezalatsu:

(1) <i>gaixo</i> (izond.) →	<i>gaixotasun</i> (iz.)
(2a) <i>gaurko</i> (izlag.) →	<i>gaurkotasun</i> (iz.)
(2b) <i>eguneroko</i> (izlag.) →	<i>egunerokotasun</i> (iz.)
(2c) <i>bestelako</i> (izlag.) →	<i>bestelakotasun</i> (iz.)
(2d) <i>betiko</i> (izlag.) →	<i>betikotasun</i> (iz.)
(2e) <i>betiereko</i> (izlag.) →	<i>betierekotasun</i> (iz.)
(2f) <i>elkarrekiko</i> (izlag.) →	<i>elkarrekikotasun</i> (iz.)
(2g) <i>nolako</i> (izlag.) →	<i>nolakotasun</i> (iz.)

Eraketaren aldetik burugabea izango litzateke *alde bikotasun* edo *aldi berekotasun* proposatzea, erator-atzizkiaren oinarria adjektibo osoa —izenlagun osoa (*alde biko, aldi bereko*)— baita. Ildo horretatik doaz hiztegi gile gehien proposamenak:

DCV/DCV ³	∅
DVC	∅

Elh.	Ø
3.000	bilateralismo: aldebigotasun Ez dute jaso <i>aldebigotasun</i> uskal sarreraren artean, baina bai <i>aldebigotasun</i> : iz. bipartidismo.
2.000	Ø
DCV/DCV ³	bateratasun, aldiberetasun
DVC	aldiberetasun: sincronismo, simultaneidad. Bateratasun: 1. coincidencia... simultaneidad...
Elh.	simultaneidad: aldibereotasun
3.000	simultaneidad: aldibereotasun, bateratasun Aldibereotasun: iz. simultaneidad. Bateratasun: iz. concordancia, convergencia, simultaneidad.
2.000	simultaneidad: aldibereotasun, bateratasun.

4.7. Hirurteko / trienio

4.8. Bosturteko / quinquenio

Gure ustez forma hauek *hankabiko* (iz./adj.) ereduak lirake eta aurreko guztiak (1-4) ez bezalakoak: hots, izenlagunak bereganatzen du isildutako ardatz-izenaren erreferentzia eta erabiliaren erabiliaz erabat lexikalizatzeraino irits daitezke (*hankabiko* izena). Goiburuko terminoetan 'aldia' edo antzeko izenen bat legoke isilduta: *hiru urteko aldia* → *hiru urtekoa* → *hirurtekoa* (iz.). Sail horretakoak lirake, orobat, *hiruhileko* tankerako hitz berriak.

DCV/DCV ³	TRIMESTRE: iru-illabete, iru-il, urte-laurden, urte-lauren / iru-illabete, urte-laurden.
DVC	IRU-IL, IRU-ILABETE, URTE-LAURDEN, URTE-LAUREN: trimestre
Elh.	TRIMESTRE: hiruhileko, hiru hileko (ikasturtearen lehen hiruhilekoa)
3.000	HIRURTEKO (iz.) 1. trienio. 2. (izond.) trienal. TRIMESTRE: urtelaurden, hiruhilabete, hiruhileko, hiruhilabetealdi
2.000	urtelaurden /hiruhileko / hiruhilabetealdi TRIMESTRE: urtelaurden, hiruhilabete, hiruhileko, hiruhilabetealdi urtelaurden, hiruhileko, hiruhilabetealdi
DCV/DCV ³	TRIENIO: iru-urte, irurte, irurte-aldi / iru-urte, irurte.
DVC	IRU-URTE: trienio; URTE-LAURDEN: trimestre, espacio de tres meses.
Elh.	TRIENIO: hirurteko
3.000	HIRURTEKO: 1. iz. trienio. 2. izond. trienal. TRIENIO: hirurteko (--- reconocidos: onartutako hirurtekoak).
2.000	HIRURTEKO: (izlag.) trienal TRIENIO: hirurteko HIRURTEKO: iz. eta izlag, trienio, trienal
DCV/DCV ³	QUINQUENIO: bost-urte
DVC	BOST-URTE: quinquenio, lustro.
Elh.	QUINQUENIO: 1. bost urte (llevo un quinquenio trabajando en esta empresa: bost urte daramatzat enpresa honetan lanean). 2. bosturteko (voy a cobrar el quinquenio: bosturtekoa kobratuko dut).
3.000	QUINQUENIO: bosturte(ko).

2.000	BOSTURTE(KO): 1. iz. quinquenio. 2. izlag. quinquenal QUINQUENIO: bosturteko BOSTURTEKO: 1. izlag. quinquenal. 2. quinquenio. BOSTURTE(KO): iz. lustro.
-------	--

Nahiz eta literatura-tradizioa jasotzen duten hiztegi orokorretan (*DVEF, EH, OEH*) *hirurteko* edo *hiruhileko* bezalako sarrerarik agertzen ez den, uste dugu kasu horietan —eta batez ere *hiruhileko*-ren kasuan— zilegi dela lexikalizazioaz hitz egitea eta ondorioz, bidezkoa dela horrelako terminoez baliatzea, hizkera teknikoan batik bat (*bosturtekoa kobratu...*). Nolanahi ere, diskutigarria izan daiteke halako hitz berriek euskara estandarrean izan behar duten maiztasuna (ik. 'quinquenio' hitzaren lehen adiera Elhuyar hiztegian); idazkera bera ere, beharbada, eztabaidatzeko kontua izan liteke (*bosturteko* ala *bost-urteko?*). Pl. Mugikak proposatu zuen bidetik (ik. Euskaltzaindiko LEF Batzordea, 1991: 152), *hiru-urte*, *hiru-hil* eta gisakoak ere beste irtenbide bat izan liteke (*hiruhortz* ereduaren arabera); baina hiztegiaren estandarizazioak *hiruhileko*-ren ildotik garamatzala ematen du.

5. LEXIKALIZATUTZAT HARTUTAKO HITZ-ELKARTEAK

5.1. Sintetikoak: *abalemaile / abal(-)emaile, zergabiltzaile / zerga(-)biltzaile*

Azpiatal honen izenburuan ageri diren eta aztergai ditugun egitura lexikoak, Euskaltzaindiaren LEF batzordeak eginiko sailkapenaren arabera, hitz elkartu sintetiko osatuetan sailkatzekoak dira; mota horretako hitz elkartuei egotziriko ezaugarri morfologiko-semantikoak ageri dituzte, izan ere. Ezaugarri horiek honako hauek dira:

- 1- Formalki beregain diren osagaiak biltzea
- 2- Bigarren osagaia aditzetik eratorritako izena izatea eta izen horrek ekintzaren egilea edo ekintza bera adieraztea.

Aise ikus dezakegunez, guztiz betetzen dituzte darabiltzagun adibideok bi ezaugarri edo baldintza horiek. Hau da, lehenengo ezaugarriari dagokionez, *abal* zein *zerga* batetik, eta *emaile* zein *biltzaile*, bestetik, elementu beregain izan daitezke perpaus barruan. Alegia, aztergai ditugun hitz elkartu hauen lehenengo osagaiak ez bigarrenak ez zaizkio beste izen edo kategoria gramatikal bati lotu edo erantsi behar perpaus barruan "bakarrik" agertu ahal izateko, hitz elkartu sintetiko errokarrietan ez bezala: hitz elkartu sintetiko errokariek, *-gile*, *-gintza*, *-gin*, *-dun* e.a. atzizkiak-edo dituzte bigarren osagai, eta bigarren osagai hori, gau egun behintzat, ez da elementu beregaintzat jotzen eta izenari lotuta agertzen da: *langile*, *santugile*, *dirudun*, *etxegintza*, *okin*, ...

Bestetik, bigarren ezaugarriari dagokionez, hizpide ditugun hitz elkartu bigarren osagaiak aditzetik eratorritako izenak dira, hurrenez hurren *eman* eta *bildu* aditzetatiko izenak hain zuzen. Eta izen eratorri horiek, adierari dagokionez, egilea, ekintzaren egilea, ematen dute aditzera: *emaile* = *zerbait ematen duen pertsona* eta *biltzaile* = *zerbait biltzen duen pertsona*.

Honen guztiaren argira, argi eta garbi geratu da sintetiko osatuen motakoak direla aztergai ditugun hitz elkartuak. Eta, beraz, mota horretako hitz elkartuei aitorturiko arauak baliatu behar ditugu euren osieran edo idazkeran. LEF batzordeak hiru idazkera-edo aipu ditu:

- 1- Bi osagaiak zuzen lotuta idaztea: *abalemaile*
- 2- Bi osagaiak marraz lotuta idaztea: *abal-emaile*
- 3- Bi osagaiak bereiz idaztea: *abal emaile*

Marra erabili behar den ala ez auzia, gaur egun antzua dena, alde batera utzirik, horretarako Euskaltzaindiaren arauak ditugula-eta, oraingo honetan eztabaidagai dugu ea lehenengo aukera, bi osagaiak zuzen lotuta idaztea alegia, besteen berdinean ipin daitekeen ala ez, hau da, marra erabiltzea edo ez erabiltzea aukerakoa den bezala osagaiak lotuta idaztea edo ez idaztea ere aukerakoa den ala ez. Galde horri argi egin diezaiokeen erantzunik ez dugu inongo gramatikatan aurkituko; alabaina LEF batzordeak badakarkigu argi piska auzi honetaz eta murrizten du *aski iharturik edo finkaturik dauden hitz-elkarte sintetiko*-etara lehenengo aukera horren erabiltzea. Hona hemen zer dioen:

Oro har bi idazkera-modu horiek [marra erabiltzea edo ez] ontzat emateak ez du esan nahi, jakina, aski iharturik edo finkaturik dauden hitz-elkarte sintetikoak ere ezinbestean horrela idaztekoak direnik. Forma ihartu horietan normala da bi hitzak loturik idaztea; idaztohitura hori bere horretan **onartzekoa** da orain ere: *urtebetetze, buruhauste, hutsegite, lekualdatze,...*

Eta hauxe gaineratzen du:

Hiztegi bidez finkatzekoa da, nolana ere, forma ihartu edo sendo finkatu horien kopuru-hedadura zehatza.

Ez dirudi, horren arabera, oso zuzena edo egokia denik lehenengo idazkera hori sorrera berriko hitz elkarte sintetikoetan erabiltzea; eta, hori dela eta, ez deritzogu *abalemaile edozergabiltzaile* gisako hitz elkartuak, bi osagaiak lotuak dituzten hitz elkarte sorrera berrikoak alegia, hiztegi teknikoetan bultzatzekoak direnik.

Ihartzeko-prozeduraren luze-zabala neurtzeko, bestalde, LEF batzordeak¹⁰ irizpide batzuk ematen dizkigu, eta ez dirudi elkarte hauek betetzen dituztenik: lexema biko elkarte gardenak dira, hots-aldaketarik ez dutenak eta lotuta idazteko tradiziozkoak gabeak.

5.2. Mendekotasunezkoak: *enpleguaniztasun/enplegu-aniztasun*

Ezer baino lehen zehaztu behar dugu zer den aztertzen ari garen elkarte. Lehenengo begiratu batean pentsa dezakegu mendekotasunezko izen-elkarte bat dugula, *enplegu* eta *aniztasun* hurrenez hurren elkarte horren mugatzaile eta mugakizun direlarik. Hori horrela izanik, mota horretako hitz-elkarteen idazkera aintzat hartu behar da. Eta idazkera horren arabera bereiz idaztekoak dira bi osagaiak; alabaina, elkarte iharturik baldin badago, orduan loturik idazteko aukera ere kontuan hartzeko da. Azken honen harian, dena den, esan behar da tankera honetako elkarteak berritsuak, hau da, sorrera arestikotsuak direla eta, horrenbestez, bereiz idaztekoak lirakeela. Hala eta guztiz ere, hiztegietan begiraturaz gero, lotuta zein bereiz idatzita aurki ditzakegu elkarteok hiztegi berean; hau da, *alderdianiztasun* baina *alderdi-bitasun*. Zein da, baina, arrazoiata bata loturik eta bestea bereiz idazteko? Egia esan, ez dugu bat ere aurkitu, eta lehenengoa bigarrena baino ihartuago dagoelako balizko arrazoiari ez deritzogu oso sendo; bada uste izateko da biok esparru eta egoera berean sortuak direla. Orobat, ez zaio inolako arrazoi gramatikali antzematen bata loturik eta bestea bereiz idazteko.

Nolana ere, hau ez da egin daitekeen azterketa bakarra; eta iritzi dezakegu *enpleguanitz* + *tasun* egitura dugula. Hiztegietan, esate baterako, *balioanitz*, *eleanitz* edo *alderdianitz* elkarteak aurki ditzakegu, eta elkarte horiei *-tasun* atzizki eratorlea erantsiz aise sor daiteke *balioaniztasun*, *eleaniztasun* edo *alderdianiztasun*. Zenbait zalantza argitu beharko lirakeke, hala ere, hitz eratorri horien oinarri diren elkarteak.

Mota horretako elkarteak bahu-rîhi-elkarteetan sailkatuak dira, *lauburu* moduko zenbatzaile + izen elkarteetan hain zuzen. Elkarte hauek urriak dira kopuruz: emarkortasunik ahulena dutela dio LEF batzordeak; eta aspaldikoek edo ihartuek bi ezaugarri-edo ageri dute. Bata kategoria gramatikari dagokio, guztiak edota gehienak

¹⁰ Ikus Euskaltzaindia (1992): 176-177

izenak direlako; eta bestea sorrerari, *-ko* edo *-dun* ezabatzeetik sortuak direlako. Aztertzen ari garen elkarten artean, ordea, bat ere ez da izena, eta guztiak izenondo modura erabiltzen dira. Bestalde, horietarik batzuk *-ko* edo *-dun* ezabatzeetik sortutzat jo badaitezke ere (balioanitz / balio aniztun) beste batzuetan sorrera hori ez dago hain argi.

Ez dirudi, dena den, *enpleguaniztasun* elkarte garatia *enpleguanitz* elkartetik eratorria denik. Izan ere, *kororeanitz*, *nukleoanitz*, *zelulanitz*, *formanitz*, *graduanitz* elkarteak gehienetam esparru tekniko batean erabiltzen dira (zoologian, biologian, botanikan...), eta izenaren ezaugarri edo nolakotasuna adierazten dute. Horietatik aparte, oso gutxi dira hiztegieta eta oso berriak: *eleanitz (tun)* elkartearen lehenengo agerraldia 1977koa da (EH). Pentsa daiteke, beraz, elkarte bakan hauen analogiaz (*balioanitz / balioaniztasun*) eratu dela *enpleguaniztasun*, *aniztasun* erdal *multi* edo *pluri* aurrizkien ordai modura erabiliz. Bestetik, elkarte honen erabileraren kontrako beste aurmentu bat, ulergarritasunik eza izan daiteke (*enpleguanitz* ?), kasu horretan mendekotasunezko elkarte agian argiago izanik: *enplegu-aniztasun*.

5.3. Askatasungabetzaile / askatasun(-)gabetzaile

Elkarte honen forma aztertuz gero, pentsa dezakegu elkarte sintetiko osatu baten aurrean gaudela; bada, itxuraz behintzat, mota horretako hitz elkartuen ezaugarriak ageri ditu:

- 1- Izena + izena
- 2- Bi osagaiak beregain dira
- 3- Bigarren osagaia aditz batetik eratorritako izena da.

Ez dago oso argi, alabaina, elkarte honek zein duen hasierako egitura, hau da, zer hartu den onarri elkarketa honen sorrerarako: *askatasuna* osagarri zuzen eta *gabetu* aditza aditz dituen pespaua, *lotsagabe* moduko elkarte batetik eratorritako aditza (*lotsagabe/lotsagabetu*) ala aditz elkartua (indargaldu)?

Elkarte honen hasierako egituratzat lehenengo aukera jotzen badugu, hitz elkarte sintetikoa izango dugu, eta horren arabera *askatasuna gabetzen duen pertsona* adieraziko da delako hitz elkarte horren bidez. Baina *gabetu* aditzaren sintaxia eta semantika, batetik, eta elkarketa honen semantika, bestetik, aztertuz gero, berehala ohartuko gara aukera hori ezinezkoa dela. Aditz honek, izan ere, norbaiti zerbait kendu diotela edo zerbait gabe geratu dela adierazten du, eta kendutako edo galdutako horri dagokion osagarriak kasu instrumentala hartzen du eta ez absolutiboa, osagarri zuzena hartzen duen kasua alegia. Hortaz, kasu jakin honetan galdutakoa edo kendutakoa askatasuna dela ulertzen bada, *askatasun* izenak kasu instrumentala hartu behar du eta ez absolutiboa. Hori dela eta, *askatasuna* ezin izan daiteke osagarri zuzen hitz elkarte honen sintaxi-egituran, eta, horrenbestez, nekez har dezakegu elkarte hau elkarketa sintetikotzat.

Bigarren aukeraren arabera, *lotsagabe* moduko elkarte batetik eratorritako aditza dugu elkarte honen hasiera egitura. Mota horretako elkarten kategoria gramatikalari begiraturaz gero, haatik, aise ohartuko gara horietarik gehienak izenondoak direla, salbuespenen bat dagoen arren, hala nola, *nahigabe*, izena dena. Hortaz, bigarren aukera hau zilegi izan ledin, ezinbestekoa izango litzateke euskaraz *askatasungabe* izenondoa egotea, eta ez dago harako izenondorik; hiztegieta, behintzat, ez dago jasota. Honek guztiak zalantzan jartzen du, beraz, bigarren aukera honen zilegitasuna.

Hirugarren aukera, azkenik, hasierako egitura aditz elkartua izatea dugu: *askatasungabetu*.. Aditz elkarte hau, ageri dituen ezaugarri morfologikoei begiraturaz gero, *izena + aditza* sailean kokatzekoa da, LEF batzordeak¹¹ egindako sailkapenaren arabera (ikus 3.1 atala). Sail horretako aditz elkartuek, batzorde horrek dioskunez, bereizgarri bat ageri dute beste mota batzuetako aditz-elkarten aldean: lehen osagai den izena, alegia,

¹¹ Ikus Euskaltzaindia (1991): 3-5

perpauz batean aditzaren adizlagun litzatekeela, ez osagarri zuzen. Eta zenbait adibide dakarkigu horren erakusgarri: *antzaz aldatu / antzaldatu, gurutzean iltzatu / gurutziltzatu, odolez hustu / odolustu* eta abar. *Gabetu* aditzaren sintaxiaz goraxeago esana aintzat hartzen badugu, ikus dezakegu *askatasungabetu* aditz elkartuak ere betetzen duela ezaugarri hori. Izan ere, gorago esanenez, *gabetu* aditzak lagun dakarren osagarriak kasu instrumentala hartu behar du eta ez absolutiboa; adizlaguna da, beraz: *askatasunaz gabetu*.. Horren arabera, darabilgun elkartearen hasierako egitura aditz elkartua da, edo zilegi dugu halakotzat jotzea.

Hori zehaztuta, haren idazkera finkatzea da hurrengo urratsa. Eta horretarako LEF batzordeak¹² esanari eutsi behar diogu berriro. Batzorde honek bitariko aditz-elkarketak bereziak ditu: *odolustu* modukoak, batetik, eta *lo egin* modukoak, bestetik; eta zehaztuak ditu, orobat, mota horietarik bakoitzaren idazkera. Horrela, lehenengo motakoak *loturik idaztekoak dira*, eta bigarren motakoak *bereiz idazten dira gehienetan*. Aztergai dugun aditz elkartua lehenengoetan sailkatzekoa da; lotuta idazti behar da, beraz. Gainera, haren antzekoak diren aditz elkartuei, izenondo batetik eratorriak ez direnei alegia, idazkera hori ematen zaie: *baliogabetu, baimengabetu, txartelgabetu, lepogabetu, zorgabetu, konortegabetu*,.... Hori horrela baldin bada, ez dago ageriko arrazoi formalik -guk behintzat ez dugu sumatu- pentsatzeko haren eratorria den *askatasungabetzaile* elkartea ez dela loturik idazti behar.

Baina elkartea hau onartzeko eragozpen formalik ez dagoen arren, badirudi nekez onartzen dugula hain silaba-kopuru handiko elkartuen idazkera lotua. Hortaz, egokiago deritzogu elkarketa sintetikoari, hiztegian jasota ez dagoen *gabetzaile* horren ordez *kentzaile* bezalakoak erabiliz: *bizar-kentzaile, askatasun-kentzaile*..

BIBLIOGRAFIA

- AZKARATE, M. (1990), *Hitz Elkartuak Euskaraz*, Donostia, Deustuko Unibertsitatea (Donostia).
- AZKARATE, M.; ALTUNA, P. (1993), "-ko/-dun atzizkiez", in Euskaltzaindia (1993), *Iker-6: Luis Villasanteri omenaldia*, Bilbo, 91-112.
- BENVENISTE, E. (1966), *Problemas de lingüística general*, [1974, Mexiko, Siglo XXI]
- BLOOMFIELD, L. (1926), "A set of postulates", *Language*, 2.
- DUBOIS ET ALII (1983), *Diccionario de lingüística*, 2. argitalpena, Madrid, Alianza Editorial.
- CABRE, M.T. (1993), *La terminología*, Barcelona, Editorial Antártida/Empúries.
- GOENAGA, P. (1980), *Gramatika bideetan*², Donostia, Erein.
- LAZARO CARRETER, F. (1981), *Diccionario de términos filológicos*, 3. argitalpena, Madrid, Gredos.
- EUSKALTZAINDIA (1987), *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I (Eraskina)*, Bilbo.
- EUSKALTZAINDIKO LEF BATZORDEA (1987), *Hitz-elkarketa/1*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- EUSKALTZAINDIKO LEF BATZORDEA (1991), *Hitz-elkarketa/3*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- EUSKALTZAINDIKO LEF BATZORDEA (1992), *Hitz-elkarketa/4*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- HOCKETT, CH.F. (1958), *Curso de lingüística moderna*, [Edit. Universitaria de Buenos Aires, 1972.]
- LEWANDOWSKI, T. (1982), *Diccionario de lingüística*, Madrid, Cátedra,.
- MARTINET, A. (1960), *Elementos de lingüística general*. [1968, Madrid, Gredos]

¹² Ikus Euskaltzaindia (1992): 62-63.

- MEILLET (1921), *Linguistique historique et linguistique générale*. [Paris, Champion 1982]
- REY, A. (1970), *La lexicologie*, Paris, Klincksieck.
- SAPIR, E. (1921), *Language*, Nueva York. (1954, *El lenguaje*, Mexiko, Fondo de Cultura Económica., 1981eko argitaraldia)
- TRASK, R.L. (1985), "-ko atzizkia euskaraz", *Euskera*, 1985-1, 165-173.
- ULLMANN, S. (1962), *Semantics: An Introduction to the Science of Meaning*, Oxford, Blackwell. [1978, *Semántica. Introducción a la ciencia del significado*, Madrid, Aguilar].
- URIBEETXEBARRIA, T. (1992), *Palabras y lengua*, Bilbo, EHUko Argitarapen Zerbitzua.
- UZEI (1990), *Zuzenbide Hiztegia /2*, Donostia, Elkar.
- WELTE, W. (1985), *Lingüística moderna. Terminología y bibliografía*. Madrid, Gredos.

AIPATUTAKO HIZTEGIEN LABURDURAK

- DBEF: AZKUE, R.M. (1925-26), *Diccionario vasco-español-francés* [1969, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca]
- DBF: LHANDÉ, P. (1926), *Dictionnaire Basque-Français*, Paris. Gabriel Beauchesne.
- DCV³: MUGICA BERRONDO, PL. (1965), *Diccionario castellano-vasco*, Bilbo, El Mensajero del Corazón de Jesús.
- DCV: - (1980), *Diccionario castellano-vasco*, 3. argitalpena, Bilbo, Mensajero.
- DVC: - (1981), *Diccionario vasco-castellano (I,II)*, Bilbo, Mensajero.
- EH: SARASOLA, I. (1996), *Euskal Hiztegia*, Donostia, Kutxa Fundazioa.
- Elh.: ELHUYAR (1996), *Euskara-gaztelania / castellano-vasco hiztegia*, Usurbil, Elhuyar.
- HAH: HUIS - Eusko Jaularitzak (1993), *Hezkuntza Administrazioako Hiztegia*. Gasteiz.
- HM: KINTANA, X. et alii (1977), *Hiztegi Modernoa*.
- HOT: MUJICA, L.M. (1977), *Hiztegi Orokor eta Teknikoa*, Bilbo, Ediciones Vascas.
- OEH: MICHELENA, L. (1987-), *Diccionario general vasco. Orotariko Euskal Hiztegia*, Bilbo, Euskaltzaindia-Edit. Desclée de Brouwer.
- 2.000: KINTANA ET ALII (1988), *Hiztegia Bi Mila. Euskara-espainiera. Espaniera-euskara*, Bilbo.
- 3.000: ADOREZ 7 (1996), *Diccionario 3000 Hiztegia*, Bilbo.

LABURPENA / RESUMEN / RÉSUMÉ / ABSTRACT

"Erdal hitz bakarria: euskal hitz bakarria" jokamolde mimetikoa euskal terminologian

Aurkeztu nahi genukeen komunikazioaren helburua gaur egungo euskal hizkera teknikoan eta terminografian nahikoa zabaldu den jokamolde arriskutsu bat agerian jartzea

da. Joera arriskutsu hori honetan datza: hiztegi teknikoetan euskal ordaina ematerakoan hitzaren unitatea hartzen da abiapuntutzat, baina euskal morfologiaren arabera barik, erdal (gehienetan gaztelaniaren) morfologiaren arabera zatitzen dira hitzak; hau da, “erdarazko hitz bakarraren ordaintzat euskal hitz bakarra” ematen da euskal morfologiari gehiegi erreparatu gabe, edo okerrago dena, euskal morfologia premiarik gabe bortxatuz.

Aipatu jokamolde mimetikoaren “ondorio badaezpadakoen” artean hurrengo terminoen tankerakoak ditugu (UZEI, *Zuzenbide Hiztegia*, 1990):

1.- enpleguaniztasun zergarindu zamarindu kargarindu aitasantutza atzeraeragingabezia alderdianiztasun alderdibitasun	pluriempleo desgravar exonerar exonerar papado irretroactividad multipartidismo bipartidismo	(fr. cumul d’emplois) dégrevé exonérer exonérer papauté non-rétroactivité pluralisme de partis système bipartite
2.- aldebakar(reko) aldebakarreko kontratu aldebateko kontratu aldebakarreko obligazio aldebi(ta)ko aldebi(ta)ko kontratu aldebi(ta)ko obligazio aldebikotasun aldibereko aldibereko prestazioak aldiberekotasun	unilateral contrato unilateral contrato unilateral obligación unilateral bilateral contrato bilateral obligación bilateral bilateralidad simultáneo prestaciones simultáneas simultaneidad	unilatéral contrate unilatéral contrate unilatéral obligatione unilatéral bilatéral contrate bilatéral obligation bilatérale bilatéralité simultané prestations simultanées simultaneité
3.- hirurteko bosturteko	trienio quinquenio	(azalpena) (azalpena)
4.- abalemaile partehartzaile partehartze zergabiltzaile askatasungabetzaile	avalista partícipe, participante participación exactor privativo de libertad	celui qui donne un aval participant participation exacteur privatif de liberté
5.- tartearri tartearitze ez-oso	interponer interposición incompleto	interposer, interjeter incomplet
6.- konstituziokontrako=institucional konstituziokontrakotasun=institucionalidad biziarteko=vitalicio=viager biziarteko errenta=renta vitalicia=rente viagère biziarteko katea=cadena perpetua=réclusion/emprisonnement/détention à vie legezkontrako=ilegal, ilegítimo=illégal, illégitime legezkontrakotasun=ilegalidad=illégalité profesioarteko (lanbidearteko)=interprofesional		

Jokaera mimetiko honen ahuleziak eta arriskuak utzi nahi ditugu agerian: a) euskara, erdararen - erdara jakin baten - mendeko(ago) bihurtzea (*enpleguaniztasun*); b) euskal morfologiaren legeak urratzea (*zergarindu*); c) analogia bidez, hizkuntzaren fisonomia eta itxura aldaraztea; d) terminologia-unitatearen ordez eta gainetik ‘hitza’ jartzea.

Komunikazio honetan puntu nagusi hauek landuko dira: a) lehenengo, ‘hitza’ definitzeko irizpideak eta zailtasunak gogoratuko dira; b) ondoren, salatu dugun jokamolde mimetikoak (“erdal hitz bakarra euskal hitz bakarra”) eragindako proposamen terminologiko batzuen azterketa egingo da; c) amaitzeko, ondorio batzuk eskainiko dira.

Una actitud mimética "una sola palabra en lengua extranjera: una sola palabra en euskera" en la terminología vasca

La comunicación que quisiéramos presentar trata de mostrar los riesgos que acarrea una de las actitudes bastante extendida en el lenguaje técnico y la terminografía en euskera, que resumimos a continuación: al dar los equivalentes de euskera en los diccionarios técnicos, se toma como punto de partida la unidad de la palabra, pero en lugar de tomar como referencia la morfología de la lengua vasca, las palabras se dividen en función de la morfología de la lengua extranjera (mayoritariamente la del español). Como consecuencia de todo ello, a una sola palabra en lengua extranjera le corresponderá una sola palabra en euskera, sin detenerse demasiado en el análisis de la morfología de la lengua vasca, o lo que es peor, forzándola innecesariamente.

Entre las consecuencias más dudosas de la mencionada actitud mimética se encuentran términos como los siguientes (UZEI, *Zuzenbide Hiztegia* [Diccionario jurídico], 1990):

1.- enpleguaniztasun zergarindu zamarindu kargarindu aitasantutza atzeraeragingabezia alderdianiztasun alderdibitasun	pluriempleo desgravar exonerar exonerar papado irretroactividad multipartidismo bipartidismo	(fr. cumul d'emplois) dégrevé exonérer exonérer papauté non-rétroactivité pluralisme de partis système bipartite
2.- aldebakar(reko) aldebakarreko kontratu aldebateko kontratu aldebakarreko obligazio aldebi(ta)ko aldebi(ta)ko kontratu aldebi(ta)ko obligazio aldebikotasun aldibereko aldibereko prestazioak aldiberekotasun	unilateral contrato unilateral contrato unilateral obligación unilateral bilateral contrato bilateral obligación bilateral bilateralidad simultáneo prestaciones simultáneas simultaneidad	unilatéral contrate unilatéral contrate unilatéral obligatione unilatéral bilatéral contrate bilatéral obligation bilatérale bilatéralité simultané prestations simultanées simultaneité
3.- hirurteko bosturteko	trienio quinquenio	(azalpena) (azalpena)
4.- abalemaile partehartzaile partehartze zergabiltzaile askatasungabetzaile	avalista partícipe, participante participación exactor privativo de libertad	celui qui donne un aval participant participation exacteur privatif de liberté
5.- tartejarri tartejartze ez-oso	interponer interposición incompleto	interposer, interjeter incomplet
6.- konstituziokontrako=institucional konstituziokontrakotasun=institucionalidad biziarteko=vitalicio=viager biziarteko errenta=renta vitalicia=rente viagère biziarteko katea=cadena perpetua=réclusion/emprisonnement/détention à vie legezkontrako=ilegal, ilegítimo=illégal, illégitime legezkontrakotasun=ilegalidad=illégalité profesioarteko (lanbidearteko)=interprofesional		

Quisiéramos mostrar las carencias y los riesgos de esa actitud mimética: a) crear dependencia (mayor si cabe) del euskera hacia las lenguas -o una sola lengua- extranjeras (enpleguaniztasun); b) quebrantar las leyes morfológicas del euskera (zergarindu); c) modificar la fisonomía de la lengua, mediante la analogía; d) situar la palabra en lugar de y sobre la unidad terminológica.

En esta comunicación se hablará de los siguientes puntos principales: a) en primer lugar se hará mención de los criterios y dificultades para definir la “palabra”; b) a continuación se analizarán algunas propuestas terminológicas realizadas bajo la influencia de la actitud mimética anteriormente criticada (“una sola palabra en la lengua extranjera una sola palabra en euskera”); c) finalmente, se darán a conocer algunas conclusiones.

Attitude mimétique "Un seul mot dans la langue étrangère: un seul mot en euskera" dans la terminologie basque

La communication que nous souhaitons présenter essaye de montrer les risques qu'entraîne une attitude assez étendue dans le langage technique et la terminologie en euskera, que nous résumons à la suite: en donnant les équivalents d'euskera dans les dictionnaires techniques, on prend comme point de départ l'unité du mot, et au lieu de prendre comme référence la morphologie de la langue basque, les mots sont divisés en fonction de la morphologie étrangère (majoritairement celle de l'espagnol). Comme conséquence, à un seul mot en langue étrangère correspondra un seul mot en euskera, sans trop s'arrêter sur l'analyse de la morphologie de la langue basque, ou ce qui est pire encore, en la forçant alors que cela n'est pas nécessaire.

Parmi les conséquences les plus douteuses de l'attitude mimétique citée se trouvent des termes comme ceux qui suivent (UZEL, *Zuzenbide Hiztegia* [Dictionnaire juridique], 1990);

1.- enpleguaniztasun zergarindu zamarindu kargarindu aitasantutza atzeraeragingabezia alderdianiztasun alderdibitasun	pluriempleo desgravar exonerar exonerar papado irretroactividad multipartidismo bipartidismo	(fr. cumul d'emplois) dégrever exonérer exonérer papauté non-rétroactivité pluralisme de partis système bipartite
2.- aldebakar(reko) aldebakarreko kontratu aldebateko kontratu aldebakarreko obligazio aldebi(ta)ko aldebi(ta)ko kontratu aldebi(ta)ko obligazio aldebikotasun aldibereko aldibereko prestazioak aldiberekotasun	unilateral contrato unilateral contrato unilateral obligación unilateral bilateral contrato bilateral obligación bilateral bilateralidad simultáneo prestaciones simultáneas simultaneidad	unilatéral contrate unilatéral contrate unilatéral obligatione unilatéral bilatéral contrate bilatéral obligation bilatérale bilatéralité simultané prestations simultanées simultaneité
3.- hirurteko bosturteko	trienio quinquenio	(azalpena) (azalpena)
4.- abalemaile partehartzaile partehartze zergabiltzaile askatasungabetzaile	avalista partícipe, participante participación exactor privativo de libertad	celui qui donne un aval participant participation exacteur privatif de liberté

5.- tartejarri tartejartze ez-oso	interponer interposición incompleto	interposer, interjeter incomplet
6.- konstituziokontrako=inconstitucional konstituziokontrakotasun=inconstitucionalidad biziarteko=vitalicio=viager biziarteko errenta=renta vitalicia=rente viagère biziarteko katea=cadena perpetua=réclusion/emprisonnement/détention à vie legezkontrako=ilegal, ilegítimo=illégal, illégitime legezkontrakotasun=ilegalidad=ilégalité		

Nous souhaiterions montrer les manques et les risques de cette attitude mimétique: a) créer une dépendance (plus grande si cela est possible) de l'euskera vers les langues -ou une seule langue- étrangères (enpleguaniztasun); b) transgresser les lois morphologiques de l'euskera (zergarindu); c) modifier la physionomie de la langue, moyennant l'analogie; d) situer le mot au lieu de et sur l'unité terminologique.

Lors de cette communication on parlera des points principaux suivants: a) en premier lieu on fera mention des critères et des difficultés pour définir le "mot", b) ensuite on analysera certaines propositions terminologiques réalisées sous l'influence de l'attitude mimétique critiquée antérieurement ("un seul mot en langue étrangère -> un seul mot en euskera"). c) Pour finir, on fera connaître certaines conclusions.

The mimetic "one foreign word: one Basque word" trend in Basque terminology

The goal of our paper is to disclose a dangerous trend that is quite wide in today's Basque technical language and terminography: when the Basque equivalent is given in technical dictionaries, the unit of the word is taken as a starting point, and, without paying any attention to the Basque morphology, words are formed following the foreign (most of the times Spanish) morphology. Then, "the equivalent of one foreign word is one Basque word" without considering the Basque morphology too much, or worse, violating with no need the Basque morphology.

Among the suspicious consequences of the mentioned trend we find the following terms (UZEI, *Zuzenbide Hiztegia* [Dictionary of Law], 1990):

1.- enpleguaniztasun zergarindu zamarindu kargarindu aitasantutza atzeraeragingabezia alderdianiztasun alderdibitasun	pluriempleo desgravar exonerar exonerar papado irretroactividad multipartidismo bipartidismo	(fr. cumul d'emplois) dégrevier exonérer exonérer papauté non-rétroactivité pluralisme de partis système bipartite
2.- aldebakar(reko) aldebakarreko kontratu aldebateko kontratu aldebakarreko obligazio aldebi(ta)ko aldebi(ta)ko kontratu aldebi(ta)ko obligazio aldebikotasun aldebereko aldebereko prestazioak aldeberekotasun	unilateral contrato unilateral contrato unilateral obligación unilateral bilateral contrato bilateral obligación bilateral bilateralidad simultáneo prestaciones simultáneas simultaneidad	unilatéral contrate unilatéral contrate unilatéral obligatione unilatéral bilatéral contrate bilatéral obligation bilatérale bilatéralité simultané prestations simultanées simultaneité

3.- hirurteko bosturteko	trienio quinquenio	(azalpena) (azalpena)
4.- abalemaile partehartzaile partehartze zergabiltzaile askatasungabetzaile	avalista partícipe, participante participación exactor privativo de libertad	celui qui donne un aval participant participation exacteur privatif de liberté
5.- tartearri tartearitze ez-oso	interponer interposición incompleto	interposer, interjeter incomplet
6.- konstituziokontrako=inconstitucional konstituziokontrakotasun=inconstitucionalidad biziarteko=vitalicio=viager biziarteko errenta=renta vitalicia=rente viagère biziarteko katea=cadena perpetua=réclusion/emprisonnement/détention à vie legezkontrako=ilegal, ilegítimo=illégal, illégitime legezkontrakotasun=ilegalidad=ilégalité		

We want to show the weaknesses and dangers of this mimetic trend: (a) to make Basque (more) dependent on foreign languages, and on one foreign language in particular (*enpleguaniztasun*); (b) to violate the laws of Basque morphology (*zergarindu*); (c) through an analogy, to change the physiognomy and features of the language; (d) to put a “word” instead and over the terminology-unit.

In this paper we will discuss the following: (a) first, the criteria and difficulties to define “word” will be remembered; (b) second, there will be an analysis of several terminological proposals influenced by the mimetic trend we have denounced (“one foreign word one Basque word”); (c) third, some conclusions will be offered.